

AITZINEKOAK

Ondorengoak "Julio Urkixo" Euskal Filologi Mintegiak Donostian 1991ko irailean eratu zuen lehendabiziko Kongresuaren, Euskal Dialektologiako Kongresua-ren aktak dituzu. Badira zenbait urte Mintegia (bonako edo harako urte/mendeurren zain izan gabe) bizpahiru urteko epeaz, alorrean ikergaiak landu heinean, era honetako biltzarreak antolatzera deliberatu zela. Hortik dagoeneko burutu diren bemen aurkezten duguna eta aurtengo (1994) bigarrena: Morfologia Teoria eta Euskal Morfologia. Abiaturik gara hirugarrena prestatzen.

Gure lehen Biltzarrerako Euskal Dialektologia gaitzat hartzearen zioak ulerterrazak begitantzen zaizkigu: Bonaparte eta Azkuez geroztik —datu bilketa hutsean bada ere— zerbait aitzinatu da, jakina; bestetik, azken urteotan ere ez da langile urrienerako alorra eta ikertzaile horietako zenbaiten lanetan bizkuntzalaritz(ar)en ukituak eta eraginak ere badauskigu. Halere, asko da Euskal Dialektologian egiteko (gehitzeko, aldatzeko zein berrikusteko) eta Dialektologiaren tokia Hizkuntzalaritzaren barnean ere ez da beste garai batzuetan bezain argi munduan barrena honelako gaietan ari direnentzat.

Gogoeta hauek genituen buruan Miramar Jauregian aste betez bildu ginenean. Biltzarreak gure aurreikuspenak gainditu zituen, bai hizlarien eta baita entzuleen kopuruari dagokionez; halaber, segur gara ikerketotan aurrerapausurik kausitu abalko dela, nabiz gehien diren euskalki/hizkeren deskribapenetan, nabiz ikerketaren historiografian, nabiz soziolinguistika edota bizkuntzaren historiaren hainbat alderditan, gaia agortzeko arriskuan erori gabe ere.

Biltzarrean eman hitzaldi gehienak (baten bat egileak berak argitaratu gabe uztea nahiago izan du), zuzendurik, egokiturik eta zabaldurik, eriden ahal dira hemen. Bada, halaber, Burundako hizkerari buruzkoa, esaterako, han aurkeztu ez arren osagarri egoki iruditurik gebitu dugunik.

Gure eskerrik beroenak Kongresuan parte hartu zuten hizlari eta entzule guztiei; orobat, Kongresuaren prestakuntzan, bertako lanetan eta ondorengoetan hainbat lagundu diguten lankide eta adiskideei. Guzti hau ezin garatuko zen Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen azpiegituraz eta, bereziki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntzaz baliatu gabe, bai antolakuntzan eta baita argitalpen honetan ere. Eskerrak, beraz, guztiei.

R. GÓMEZ eta J. A. LAKARRA